OTSAILAK 21

UZEI informa y responde (III)

"UZEI-ren hiztegiek zer balio dute?"

E. Knorr-ek jarri du galdera (DEIA, 1982-1-29). UZEIko langileok ez gara zuzenean horri erantzuteko egokienak. Hor daude Hiztegiak, edonoren kritikari irekita. Baina horretarako ezpiko erizpideak eta metodologia ezagutu beharra dago. UZEIk darabiltzanak azalduko ditugu hemen.

Gure hiztegi-lana bideratu genuenetik, metodologia landuz, tresnak hobetuz, lexikologi eta lexikografi arazoak sakonduz eta erizpideak zehaztuz eta zuzenduz etorri gara. Etengabe ikasten ari gara.

Textua eta lexikoa batean

Hiztegiok esku artean eduki dituenak ondo daki, horietako gehienek —oinarrizkoek— bi atal nagusi dituztela: **Gaiak** eta **Lexikoa.** Lehenengoa textua da, non, hiru maila ezberdinetako artikulutan, Hiztegiaren alorreko gai handienak eta kontzeptu nagusienak azaltzen bait dira. Bigarrena, hitz-zerrendak dira. Erdibana hartzen dute gutxi gora behera bi atalok. Hiztegi bakoitzean.

Hauxe da Hiztegion egituraren arrazoia: Lexikoa textuaren gain landu, erabaki eta finkatu behar dela; horren barnean egiaztatzen bait da hitzaren balioa eta egokitasuna. Gure hiztegigintzaren oinarri-oinarriko eta hasiera-hasierako erizpidea da hori: "Hitz-zerrendak beti ere frogategia textu jarraituetan du: zerrenda horiek, ahal den guztietan, idazlanetan erabiliak agertu behar dute kalera. Hitz baten balioa textuinguruaren baitan frogatu behar da. Lexikoaren baliagarritasuna erabilera praktikoan ikusko da garbi, ez zerrenda gorritan" (UHF, 1.21).

Ez dugu uste gure Hiztegiok hitz-zerrenda soiltzat inola ere hartzerik eta juzgatzerik dagoenik. Orain urte UZEIk egitura normal horrekin **argitaratu** zituen sei hiztegien artean 2.000 orrialdetik gorako textu-masa osozen dute.

Zerrenda-itxuran landu diren bakarrak Zirkulazioikoa, Enpresakoa eta Administraziokoa izan dira. Eta hori, horrelaxe eskatu zitzaigulako. Hala ere, horrek ez du esan nahi zerrenda horietako hitzak bakoitza bere adetik eta inolako textuingururik gabe sortuak direnik. Esate baterako, "Ley de Régimen Local"etik hitzak husten direnean eta euskarara jartzen, hitz bakoitzak du bere textuinguru zehatza eta ondo finkatua. Zirkulazio-kodetik ateratzen denean, beste horrenbeste.

Dena dela, gure eritzia argi dago: Gai hauetan eta bestetan asko idatzi eta eten gabe erabili beharrekoa da euskara, hizkera teknikoarekin batera, lexikoa zehaztuz, mamituz eta finkatuz joateko.

Lexiko teknikoaren berezitasunak

"... Edozein erabaki lexikal hartzekoan UZEIk kontutan hartu behar du, Hiztegi berezituak egiten ari bada, zientzia-tekniketako terminologiaren ezaugarriak ezin ahantz ditzakeela, hots, **eraberdinasuna** (uniformetasuna), **zehaztasuna, laburtasuna** (UHF, 2.4.20). Horiek ez dira kontutan hartzeko oinarrizko erizpide bakarrak noski, baina bai behinenak, lexikologia teknikoan adituei jarraiki.

Horregatik, "UZEI (...), zientzi munduak behar eta galdatzen duen terminologia zehatza, esanahi bakarreko eta desberdindua kontutan eduki beharrean dago eta eduki ere badauka, eta badaki elementu horien artean oreka bat lortu behar duela" (UHF, 2.4.22).

Hori da bidea. Jakina, ez dugu uste gure Hiztegien bidez helburura iritsi garenik. Sarasolarekin bat etor gaitezke honetan: "Tamalgarria da beharbada, baina ezin dugu amets egin urte pare batean euskarak alor guztietan erdaren zehaztasuna lortuko duela". Urte bi baino gehiago darama UZEIk lanean; denon artean bidea irekiz bagoaz, helmuga gero eta hurbilago izango da. Baina orain ahal dena egiten saiatzen ez bagara, sekula ez dugu pausorik aurreratuko.

Lexikoaren sorkuntza UZEIn

Hiztegi tekniko-berezituak lantzeko, lexikografiari eta lexikolgiari buruzki ikerkuntza sakondu behar izan du UZEIk; horretarakoxe baitzuko sail berezi bat antolatzen ari da orain. Hiru eginkizun nagusi ditu sail horrek: a) Munduan zehar Lexikografia tekniko-berezituari buruzko eskarmentua biltzea; b) Lexikolgia teorikoa sakontzea; c) UZEIren lanetarako euskal lexikologia aplikatua aztertzea, eta une bakoitzean hartu beharreko erabakiak proposatzea.

Lexiko tekniko-berezituaren sorkuntza da noski UZEIren arazo nagusia. Mitxelenak berak dioenez, ukaezineko da "la necesidad evidente que tenemos de nuevas palabras, fabricadas o tomadas a préstamo o adaptadas a nuevos usos". Baina berehala agertzen ditu berak UZEIren lan eta erizpideei buruzko susmoak, zalantzak eta beldurrak.

Erizpide orokor eta oinarrizko bezala, hiru iturri hauek erabili behar direla uste du UZEIk: a) Euskal tradizioko hiztegia; b) Hizkuntzarteko eratorritako hitz berriak. Hirurak konbinatu beharra dago, euskararen "normalizazio kulturala" lortzeko. Baina iturri bakoitzak bere arazo handiak ditu lexikologia aplikatuan: guztiak zehaztuz eta argituz, erabaki konkretuak hartu beharra dago, ordea. Hiztegigintzako problema berrien arabera, bere erizpideak konkretatzen eta zuzentzen saiatu da UZEI, eta Lexikologia aplikatuaren hainbat kapitulu nagusi sistematikoki lantzen, bereziki: Hitzen eratorpena, Hitz-elkarketa, Zabalkuntza semantikoa, Berrezarpen lexikala eta Berrikuntza fonologikoa. Kapitulu guzti horiei buruzko liburu bat aski aurreratua dauka UZEIk, "Lexiko-sorkuntzarako bideak" izenekoa.

Lexiko-bilketa

UZEIri egin zaion zenbait kritikatan puntu hauxe nabarmendu da: horrelako hiztegiak egiteko behar den lexiko-husketa. "Lo primero que hay que recoger (...) son los términos **vascos** atestiguados (Mitxelena); "Hiztegigintza berezituetan barrena abiatu nahi duenak, gai bakoitzari buruzko lan guztiak aztertu behar ditu" (Sarasola); "Euskal hiztegien husketa eta hitzen bilketa eginak ez ziren garaikoak dira hauek" (Knorr).

Ondo jabeturik gaude hasieratik bertatik premia horretaz; eta gure ahalegin handitxoenak hortxe jarri ditugu; hala ere, dena agortu gabe daukagula aitortzeko lotsarik ez dugu.

Dena dela, hona hemen zenbaki batzu, aski nabarmenak, gure ustez. Hiztegi bakoitza lantzeko hustu diren euskal liburu arikuluetatik ateratako fitxak zenbat izan diren jakiteko:

Hiztegiak	Fitxak
Natur Zientziak	20.000
Fisika/Kimika/Matematika/Teknologia/etab. (Elhuyar-ek egindako husketa-lana)	53.000
Politika	20.000
Psikologia	5.000
Ekonomia	6.000
Filosofia	10.000
Artea	4.200
Zuzenbidea	10.000
Medikuntza	6.000
Erlijioa	10.000
Historia	6.000
Kirolak	3.000

Denetara: 153.000 fitxa. Gainera beste 12.000 baditugu, azken hogeitabost urteotako hainbat aldizkaritan erabilitako "kultur hitzak" jasotzen dituztenak.

Ehundaka artikuluz gain, 550 liburutik gora eta hainbat lexiko eta hitz-zerrenda partziak irakurri eta hustu dira.

"El diccionario se hace en principio sobre textos orales y escritos", dio Mitxelenak. "En principio" bat gatoz berarekin; ondorioz, horixe egiten saiatzen gara.

Lexikoaren finkabidea

Hiru aldetatik biltzen da UZEIko Hiztegietan ematen den lexikoa: a) Hiztegirako landuriko gai eta artikuluetatik; b) Erdarazko hiztegi eta textuetatik; c) Euskal literaturatik. Ez da egia, beraz, UZEIk, erdarazko zerrenda bildu eta hori euskaraz jarri besterik ez duela egiten.

Nahiko landua daukagu gaurregun Hiztegietako lexikoa finkatzeko prozesu normalda; 1) Oinarrizko lehen zerrenda behin-behinekoa eskaintzen zaie artikulugileei, beren lanak idaztean frogatuz, kritikatuz eta osotuz joan daitezen; 2) Hiztegiaren zuzentzaileak, artikuluak zuzenduz batera, eta bestelako iturriak ere aztertuz, zerrenda burutu eta euskal formak bateratzen ditu; 3) Zerrenda osoa UZEIko langileen, Hiztegiko artikulugilen eta kanpoko beste hainbat gaituren eskuetan jartzen da, kritika dezaten; 4) Kritikak jaso eta sailkatu ondoren, Hiztegiko kontseiluak, lexiko osoa erabaki eta finkatu egiten du, hitz eta unitate lexikal guztiak banan-banan aztertuz. Erabaki horien arabera, berriro irakurri eta zuzentzen ditu Zuzentzaileak Hiztegiko artikulu guztiak.

"Chapuza apresurada" ote da hori? Egia da, sarritan gure lankideen eta kontseilarien aldetik kritika sakonagoak eta zabalagoak nahi genituzkeela. Baina argitaratu ondoren ere, irekita gelditzen da Hiztegia, irakurleen eta erabiltzaileen eskuetan, beren kritikak UZEIra bidal ditzaten. Jabeturik gaude, eta hamaika bider aitortua dugu, gure orain arteko Hiztegiak behin-behinekoak direla.

Horregatik, Hiztegi tekniko-berezituen didaktikarako gidaliburuak prestatzen ari gara orain. Horien asmoa hauxe da: Ikastaro berezien bidez, alor bakoitzeko adituak eta jakitunak beren espezialitateko lexiko-hizkerez jabetuz batera, hiztegiok kritikatzea eta frogatzea, gerora Hiztegi finkatuagoak prestatuz joateko.

Euskara/Erdarak

Eleaniztunak dira UZEIren Hiztegiak. Hasieratik bertatik zegoen argi gure erizpidea: euskal lexiko tekniko-berezitua ez zela gaztelaniari begira bakarrik landu behar eta bai frantsesari begira ere, Iparraldeko euskaldunak ere oso kontutan eduki behar zirelako. Horregatik, euskararekin batera beste bien baliakideak jarri genituen.

Baina berehala gehiago zabaldu genuen erizpide hori; eta ingelesa eta alemana ere oso kontutan hartu beharrekoak zirela ikusi genuen, euskal lexiko-sorkuntzarako. Bata, gaurko zientzien eta teknikaren munduan duen eraginagatik; bestea, euskal hitz berriak eratzeko eta horien zeri egin behar dioten erreferentzia ikusteko bide egokiak eskaintzen dituelako sarritan. Uste dugunez, lehen aldiz egiten dira euskal Hiztegiak, sistematikoki beste hizkuntza moderno horiekin batera landuz. Horretarako, beste lankideen artean, Herzkuntzaz (sarritan Hizkuntzaz eta izatez ere bai) ingeles edo aleman diren lagunak ditugu, euskaraz ere ondo dakitenak gainera. Hiztegi bakoitzeko Zuzendari-Zuzentzaileekin batera egiten dute lana horiek. Areago, une honetan, erdarak gura Hiztegietan lantzeko eta lexiko tekniko-berezituak lantzen dituzten nazioarteko erakundeekin harremanak estutzeko Departamentu berezi bat antolatzen ari gara UZEI barruan.

Hiru puntutan azaldua du UZEIK arazo horri buruzko bere erizpidea: "a) Inguruko hiruzpalau hizkuntza aztertzean, nekezago eroriko gara gaztelaniakeriatan; b) hitz-sorketarako idarokizun aberatsagoak jasoko ditugu (alemana, e.b., maiz asko hobea dugu, gaztelania baino); c) Hizkera teknikoen premiazko nazioarteko ibilbidea erraztu egiten zaie euskarari eta espezialistei" (UHG, 1.1.19).

Hala ere, aitortu beharra daukagu zenbait kasutan, frantsesaren eta gaztelaniaren erreferentziak konkretuegiak edo biziegiak direlako, ez daukagula hortik ihesegiterik ahaleginak egin arren.

Bestalde, gerkera eta latina ezinbestekoak gertatzen dira kultura modernoko eta gaurko zientzietako terminologi piloa sortzeko. Ez dugu uste euskara normalduak horietatik ihesegin behar duenik.

Zer balio dute UZEIren Hiztegiek? Neurri on batez behintzat, eta funtsean, berak darabiltzan erizpideek eta metodologiak balio dutena. Hortik aurrera, langilee gaitasunaz gain finantzapen-oinarria eta lanaren antolaketa egokitu behar.